

noaua



LAGUN ARTEAN EMANGO DIOTE AMAIERA 18 URTEKO IBILBIDE ARTISTIKOARI

Odolaren Mintzoak herriko artista askoren babesia izango du agurreko kontzertuan / 16-18 or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

"Orain da unea, Aginagan itsas eta errio kultura berpiztekoa" / 06



NOAUA

Inauteri Festarako gaia proposatzeko, bi asteko epea duzue / 14



NOAUA

Bidez Bide landa eremuko garraio zerbitzua eraberritua dator / 20



NOAUA

Larunbat honetan 'Hitz Esana' ikuskizuna Emakumeon Etxean / 22

ANTONIO URRUZOLA AROSZTEGIA

943 376 415
687 845 599

Asteasuain Industrialdea, 3.



943 530 337
607 119 313

·gremioen koordinaketa ·berritze lanak
·sukaldeak ·komunak ·mota guztietako obrak
·aurrekontua konpromisorik gabe

errekaxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

ETORKIZUNEKO SAGASTIAK: MENTUOIN BERRIAK GENEVA BELAUNALDIA

Txertaketa belaunaldi berri honen ezaugarri nagusiak azalduko dira: gaixotasunekiko duen erresistentzia handiagoa da, ekoizpen handiagoak lortzen ditu eta lurraren nekea ez du pairatzen.

Antolatzaileak:

Alkartasuna Usurbilgo baserritarren kooperatiba eta Sagardoaren Unibertsitatea.



URTARRILAK 23
OSTEGUNA
18:00 Potxoenean

Irakaslea:
Aitor Etxeandia

Izen ematea: Doan
Alkartasunako telefonoan
943 361114 eta
alkartasuna.eus web orrian.



"Milaka bizitza salbatu ditugu"

Sutegiko erakuslehoan ikusgai duzue Usurbilgo Odol Emaileen Elkartekoek bistaturiko 50. urtemugako erakusketa.

Urteurren borobila eguntan ospatuko dute, hamabostaldi honetan bertan. Erakusketa dagoeneko zabaldu dute. Bi hilean behin egiten duten moduan, astelehen honetako, urtarrilaren 13ko odol-emaitearekin batera albiste honi atxikia duzuen argazkian ikus dezakezuen moduan, zenbait panel kokatu dituzte Sutegiko erakuslehoan.



Odola ematearen beharraz ohartarazi nahi digute erakusketa honen bidez.

Garbigune mugikorra, Aginagan

Urtarrilaren 16tik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urtarrilaren 23an osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

Kzguna arratsalde zabalduko dute otsailean

- Otsailak 3-14, 18:00-20:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".
- Otsailak 17-28, 18:00-20:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

Informazio gehiagorako:
943 023 684

Hamalau jaiegun aurtengo egutegian

Honako hauek izango dira aurtengo jaiegun ofizialak Usurbilen:

- Urtarrila: 1, 6.
- Apirila: 17, 18, 21.
- Maiatza: 1.
- Uztaila: 2, 25, 31.
- Abuztua: 15.
- Azaroa: 1.
- Abendua: 6, 8, 25.

Gabonetako irudiak, noaua.eus web orrialdean ikusgai

Neguko lehen ospakizunak igaro berri ditugu. Abendu amaieran nahiz urte hasiera honetan izan ditugun hamai-ka ekimen iruditan bildu ditugu.

Argazkiak ikusgai dituzue noaua.eus/bereziak helbidean, "Gabonak 2024-25" izeneko kanalean.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



AINHOA AZPIROTZ EIZMENDI

Hil ala biziko bihurtzeraino

- Ezin dut hutsik egin!
- Nora, urteroko familia bazkarira?
- Ez, ez, urteko hitzordurik inportanteenera. Ezin dut joan gabe geratu.
- Eta zer gerta liteke joaten ez bazara?
- Ba nire bizitzako aukera galduko dudala.
- Zer da, aspalditik desio duzun lanpostu baterako hitzordua?
- Ez, ez, lan aukera gehiago ere sortuko dira. Baina hau ez, hau bakarra izango da eta bertan egon behar dut.
- Koadrilako baten ezkontzan?
- Ez, askoz ere gogoangarriagoa izango da.
- Eta ez da aukera gehiagorik izango?
- Ez. Bueno, igual bai, baina ez da gauza bera izango. Errepikaezina izango da eta nereak eta bi egin behar ditut han egoteko.
- Behin bakarrik gertatuko den zerbait?
- Bai, milaka pertsona joango dira. Nola geratuko naiz ni joan gabe? Ezin dut.
- Eta zer pasako zaizu joaten ez bazara?
- Ez dut pentsatu ere egin nahi. Jende guztia han eta ni ez? Ezta pentsatu ere. Nik ere han egon behar dut.
- Behar, behar... ez ote da gehitxo?
- Ez al dituzu komunikabideak irakurri? Ez al dituzu sare sozialak jarraitu? Ikusgarria izango da, gogoangarria, ahaztezina, errepikaezina, magikoa, izugarria, hunkigarria!!



"Jende guztia han eta ni ez? Ezta pentsatu ere. Nik ere han egon behar dut".

- Bai, energia handia sortuko da, borobila izango da, leher-tu egingo da, bikaina izango da... betikoa.
- Nola betikoa?
- Bai, zure gogoko musika taldeak eskainiko duen kontzertuaz ari zara. Baina iaz ere beste talde baten kontzertuarekin gauza bera esan zenuen. Izugarria izan zen, neu ere joan nintzen eta bikain pasa genuen.
- Orduan, oraingoan ere etorriko zara?
- Eta 2026ko maiatzean izango den kontzerturako sarrerak bihar erosi? Goizeko 9:00etan egiteko guztiak alde batera utzi eta ordenagailu aurrean estresak jota jarriz? Ez, oraingoan ez.
- Ez dut ulertzen, ahaztezina izango da eta estresak mereziko du.

"KONTZERTU ERRALDOI ETA KOLOSAL GUZTIETARA JOAN GABE BIZI NAITEKE"

- Bai, denak dira hunkigarriak eta ahaztezinak. Hala esaten digute behin eta berriz, benetan joateko beharra sortu arte, ezin dugula galdu sinestarazi arte.
- Ez, ez da sinestarazten digutela. Nik benetan joan nahi dut.
- Bueno, marketina ikasten ari den bizilagunari galdetuko diot beharrak geureak diren edo sortu egiten dizkiguten...
- Orduan, oraingoan galdu egingo duzu?
- Galdu, galdu... akaso beste zeozer irabaziko dut. Oraingoan ez naiz joango eta lasai geratuko naiz. Kontzertu erraldoi eta kolosal guztietara joan gabe bizi naiteke, ez kezkatu. Gainera, beste formatu batzuk ere gustuko ditut. Adibidez, Odolaren Mintzoa taldea herrian agurtuko da, lagunartean, eta herriko beste talde batzuk ere oholtzara igoko dira: Anuk eta Elene, Viáfara, Hysteria, Zaparra, Mihise, Txiskeroak, Ameba, Rukula eta Dj Jotatxo. Aukera hori izatea ere ederra eta hunkigarria da.

Mintzalagun egitasmoan izena emateko aukera

Euskaltzaleen Topaguneak eta Ttakunek sustatu eta Usurbilgo Udalak babesturiko Mintzalagun egitasmoan matrikulatzeko epealdia zabalik da urtarrilaren 27ra arte. Izena emateko esteka honetako formularioa bete behar da: <https://forms.gle/PtDQmmvkZrJw97Sv5>

Bestela, Potxoenean eta Etumeta AEK euskaltegian eskuratu ahaliko dituzuen eskuorrien bidez bideratu ahaliko duzue inskripzioa. Gogoan izan, Mintzalagun egitasmoak euskaraz bizi ez direnak eta euskaraz ondo moldatzen direnak batzen ditu taldeka, astero. Batzuei zein beste euskara ahotan hartzea ahalbidetzen die egitasmo honek topaketa horien bidez. Taldeak, "kideen zale-tasunak, adina, bizitokia eta ordutegiak kontuan hartuz sortzen dira".

Aurrematrikulazioa, otsailaren 3tik aurrera

2025-26 ikasturterako ikaste-txeetan HH, LH eta DBH zikloetan matrikulatzeko argibideen (egunegia, onarpen jarraibideak...) berri eman zuten Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak urtarrilaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bidez. Aurrematrikulazio kanpainari otsailaren 3an ekingo zaio. Ohi bezala, bi aste iraungo du epealdi horrek, otsailaren 14ra arte.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua • asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, raziokak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

EAJ-PNV alderdiak proiektu politiko berritua osatu nahi du Buruntzalderako

Buruntzaldeko erronka politiko, sozial eta ekonomikoei aurre hartzeko estrategia lantzen hasi da EAJ-PNV. Maria Eugenia Arrizabalaga GBBko presidentea Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo ordezkariekin batu berri da.

Gipuzko Buru Batzarra (GBB) berri dute, alderdi jeltzalea erronka politikoei aurre hartzeko estrategia lantzen hasi da Buruntzaldean. Horretarako, "hiru helburu nagusi finkatu ditu Gipuzkoako EAJ-PNVren zuzendaritzak: batetik, lurraldeko lehen indarra izatea. Bestetik, aldatzeko eta berrikuntzarako eragile izaten jarraitzea eta, azkenik, abertzaletasunaren etorkizuneko erronkei erantzunak ematea, ikuspegi ireki eta zabalagoa oinarri duelarik".

Benetakotasunaren aldeko apustu politikoa

Maria Eugenia Arrizabalaga GBBko presidentea, egungo egoera politikoaren diagnostikotik abiatuta, proiektu politiko berritua osatu nahi du, "bailarako erakundeetako ordezkariaren partaidetzarekin aberastuta". Arrizabalagaren esanetan, "populismoa eta demagogia dira demokraziak mundu mailan dituen arrisku handienak, eta Gipuzkoa ez da horren salbuespena". Are gehiago, "polarizazioa eta desinformazioa sustatu di-



Maria Eugenia Arrizabalaga Buruntzaldeko ordezkari jeltzaleekin batu berri da.

tza". Honen aurrean, "benetakotasuna" defendatu behar dela dio EAJ-PNVk, "errealistotik eta eguneroko lanetik herria eraikitzeko, alderdiaren betiko nortasuna erreibindikatuz, baina izaera berritzaile batekin".

"Sektarismoari langa jarri behar zaio"

Maria Eugenia Arrizabalaga GBBko presidentea berriaren ustez, "aurea hartu behar diegu euskal gizarteak eskuar-tean dituen erronkei, eta horretarako modu proaktiboan

jardun beharra dago". Ponen-tzia berriak jasotzen dituen aukerez baliatuta, gizarte-, kultura- eta ekonomia munduko eragileekin sare berriak eratzeko konpromisoa hartu du Maria Eugenia Arrizabalagak: "gure ikuspegi abertzailea maila guztietara zabalduz, herria maitatuz, herritar guztiak errespetatuz eta herrigintza eraginkorra eginez, bai epe motzeko arazoei erantzuteko bai epe luzera begira jarritik, mutur bateko eta beste sektarismoari langa jarriaz".

2025eko ordenantza fiskalak indarrean

Urte berria estreinatzearekin batera, indarrean ditu Usurbilgo Udalak 2025eko zerga, tasa eta prezio publikoak. KPI-aren abuztuko %2,6ko igoera orokorra aplikatzea hobetsi zuten, baina salbuespen berriekin, Udalak abenduaren 13an GAO bidez jakinarazi moduan. Horrekin batera, aurtengo egutegi fiskala ere behin betiko onartu zuten urte amaieran.

2025eko egutegi fiskala

- Hilero, hilaren 5ean: Haur Eskolaren hezkuntza zerbitzua.
- Urtarrilak 2-31: asteroko merkatuaren erabilpen tasa (2024ko 4. hiru hilekoa).
- Otsailak 1-martxoak 1: ura, estolderia eta hondakinak (2024ko 4. hiru hilekoa).
- Martxoak 1-apirilak 15: trazio mekanikozko ibilgailuen zerga.

- Apirilak 1-maiatzak 2: asteroko merkatuaren erabilpen tasa (2025eko 1. hiru hilekoa).
- Maiatzak 2-ekainak 3: ura, estolderia eta hondakinak (2025eko 1. hiru hilekoa).
- Maiatzak 15-uztailak 1: ondusun higiezinaren gaineko zerga.
- Uztailak 1-abuztuak 1: asteroko merkatuaren erabilpen tasa (2025eko 2. hiru hilekoa).
- Abuztuak 1-irailak 2: ura, estolderia eta hondakinak (2025eko 2. hiru hilekoa).
- Irailak 2-urriak 1: espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa).

- Urriak 1-azaroak 1: ekonomi jardueren gaineko zerga.
- Urriak 1-31: asteroko merkatuaren erabilpen tasa (2025eko 3. hiru hilekoa).
- Azaroak 1-abenduak 2: ura, estolderia eta hondakinak (2025eko 3. hiru hilekoa).
- Azaroak 1-29: bide publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa (beladoreak, kutxazain automatikoak...).
- Azaroak 1-29: emakida administratiboak (Atxega jauregia, udal baratzak...).



· EGUNEKO MENUA
· KARTA
· RAZIOAK
· HANBURGESAK
· BOKATAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatexea.com 943 36 91 39



Kima

MASAJE LEKUA



· KIROL MASAJEA
· MASAJE
TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN
HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behe LASARTE-ORIA 943 36 61 97



Alaitz Aizpurua, Xabier Alberdi, Xabier Agote, Lurdes Odriozola, Nagore Urdapilleta eta Ibon Gaztañazpi, solasaldi betean.

'Errio' dokumentalaren proiektzioak ikusmina sortu zuen

Udalerrri hau zeharkatzen duen ibaiak gordetako hainbat sekretu azaleratu zituen, urte amaieran, NOAUA! K.E.-k Antxomolantxa K.E.-k eta Aginagako Eliza Zaharra Elkarguneak proiektaturiko 'Errio' ikus-entzunezkoak.

Nagore Urdapilletaren eta Ibon Gaztañazpiren ordubete inguruko dokumentalaren emanaldiak ikusmina sortu zuen, goraino betetako Aginagako Eliza Zaharrean. “Hainbeste denbora pasatako tokiaz zer gutxi dakidan” ikusi eta ikasi ahal izan du proiektu honekin, Urdapilletak adierazi zuenez. Bera da dokumentaleko narratzailea. Oriotik Aginagarantz errioren gora abiatzen da. Bidean zehar, Ori barruko nahiz ertzetako istorio, gertaera eta ahotsak biltzen ditu ikus-entzunezkoan. Ezezaguna dugun gertuko, hurbileko errioiari buruzko oso bestelako ikuspegi eskaintzen digu, ia erabat isilpean egondakoa, za-

lantza izpirik gabe azaleratzea merezi duena, duen balio aberatsagatik.

“Harrigarriena da ze ezjakinak garen, ze gutxi dakigun” inguru hauei buruz, zioen Gaztañazpi. Horregatik, dokumentala errioren historia ezkutu horretara hurbiltzeko bitarteko gisa aurkeztu zuten. Ildo beretik mintzatu zen baita Orioko alkate Anuska Esnal. Errioa ibaiko ur geza eta itsasoko ur gazia nahasten diren lekua dela jakinik, zioenez “gazia da gure arbasoen hainbat lanbide eta jakinduria gainbeheran ikustea”. Era berean, gozotzat jotzen zuen ondare horren parte izatea herriok.

“Altxor galanta da”

Proiektzioaren ostean, solasaldi interesgarri askoan bildu ziren dokumentalaren bi egileak, Xabier Agoterekin (historialaria, Albalako sortzaile eta lehendakaria), Lurdes Odriozolarekin (historialaria)

"ZUEN ARBASOEN HANDITASUNARI ESKER, HEMEN EGITEN ZIREN ITSASONTZI AURRERATUENAK"

XABIER AGOTE HISTORIALARIA

eta Xabier Alberdirekin (historialaria) batera.

Egileen antzera, historia ezkutu honen transmisio faltaz aritu ziren eta hori eragindako faktoreez. Egileen esanetan, “etxeko historia ez da balorean jarri”. Denborak berak ekarritako galera dago Alberdiren ustez. Horri gaineratu behar zaio, udaletxeetan izandako suteetan zenbat dokumentu galdu ziren. Istorioak eraikitzean, gainera, hautaketa bat dago, “gauza batzuk sartzen dira, besteak ez” eta horretan guztian, “emakumeek ez dute lekurik izan”.

Euskaldunak itsasora begira bizi arren, Odriozolak nabarmendu zuen historialari izateko ikasketetan, Erriko dokumentalak jorratzen dituen gaiei buruz “ez zidaten irakatsi”. Artxibategiak ere ez daude ondo antolatuak bere esanetan. Estatuko artxiboetan eraiki da bere hitzetan historia ofiziala eta “ikuspegi oso partziala” eskaintzen du horrek. Dokumental honetatik, besteak beste, lekukotzen balioa azpimarratu zuen. Izan ere, “paperetan, artxibategietan ez dagoen informazioa” eskaintzen dute eta ez badira jasotzen, hori bai “galdu egiten da. Altxor galanta da”.

“Garaiko autopistak”

Oriok eta Aginagak ontzigitzari lotutako industria jardue- ra itzela izan zuen, punta-puntakoa, erreferentziazkoa inguruntzatik kanpo, nazioartean ere. “Hemen, egiten ziren itsasontzi aurreratuenak, zuen arbasoen handitasunari esker”, Agotek azpimarratu zuenez. “Jakintza eta trebetasun teknologiko handia eta jende ausarta izan zen hemen, bere bizimodua eta ondasunak arriskuan jartzeko prest zegoena, Oriaren inguruko jardueron eta herri aberastasunaren alde”, Odriozolaren esanetan.

Horren isla izan zen Orion bertan ontzigitzaren bueltan nola zegoen antolatua herria.



'Errio' filmaren ondorengo proiektzioan esan zenez, "orain da unea, itsas eta errio kultura berpiztekoa".

→ Aginagaren kasuan, nola bat egin zuten errio barruko jarduerak, landa eremuarekin. "Itsasoa-baserria lotura" hori solasaldian zehar aipatu zuten sarritan, eta hor, tartean, sagardogintzakedota basogintzak

izandako garrantzia. Horrekin "paisaia berezi bat sortuko da horri guztiari forma emango diona. Paraje berezi eta izugarri aberatsak ziren", Alberdik azaldu zuenez. "Krisialdi garaian gizarteari eskaintzen

diote, besteak eskaintzeko gai ez direna", nabarmendu zuen Odriozolak. Izan ere, XV eta XVI. mendeetako testuinguruan kokatu beharrak baikaude. Elikagai falta zegoen, biztanleria handitzen doa. Aipatu

sektoreak ziren diru-iturri nagusiak eta ibaiak, Oria kasu, "garaiko autopistak" Odriozolaren esanetan.

"Orain da unea"

Begi-bistakoa da Oriaren bueltan egituratzen zen bizimodu hartatik izandako galtze prozesua. Oraindik ez dela amaitu ohartarazi zuen Alberdik. Horregatik, dokumental honek edota Albaolan egiten ari diren ahalegina adibide gisa hartuta, "orain da unea, itsas eta errio kultura berpiztekoa. Ea lortzen dugun denon artean", galdegin zuen Agotek.

"AGINAGAN, BAT EGIN ZUTEN ERRIKO ETA LANDA EREMUKO JARDUERAK. HORREK PAISAIA BEREZI BAT EKARRI ZUEN"



USURBIL 58 Dokumentala

Altxor txiki bat, opari handi bat

2023ko udazkenean, Usurbilgo irudi zirraragarri batzuk topatu genituen Euskadiko Filmategian. Juan Illarramendik grabatu zituen 1958 eta 1960 urteen artean. Orain arte ikusi gabeak. Sutegiko estreinaldi arrakastatsuen ondoren, dokumentala eskuragarri duzue.

Dokumentala, salgai

'Usurbil 58' argitalpena DVD batekin eta USB memoria batekin osatzen da.

Batean zein bestean, bi artxibo topatuko dituzue:

- Juan Illarramendiren irudi originalak. 20'11".
- Irudi horiek baliatuz osatu dugun dokumentala: 51'16".

NOAUA!ko bulegoan, Lizardi eta Laurok liburudendetan salgai.

Prezioa: 10 euro.

*NOAUAko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete, baina soilik NOAUA!ko bulegoan.



"Bertako plazerra" aldarripean aurkeztu zuten urtarilaren 9an Donostian txotx bolada berria.

Uzta txikiagoa, baina izaera handiagokoa

Txotx bolada berrian murgildu gara dagoeneko. Sagardotegietara joateko garaia heldu da. Denboraldi honi buruzko xehetasunak eta sagardogintzaren etorkizuneko erronkez mintzatu ziren iragan astean, Donostian eginiko jendaurreko aurkezpen ekitaldian.

Txotx garai berri honek aurreko urtekoa baino uzta txikiagoa dakar, baina izaera handiko sagardoak. "2023. urtean uzta handia izanda 2024an txikiagoa espero zitekeen; eta aurreko neguko hotz eskasiak are eta txikiagoa eragin dute. %60 sagar gutxiago izan da Euskal Herriko sagastietan", berri eman du egunotan sagardogintzan diharduen sektoreak "bertako plazerra da sagardoa" aldarripean, Donostian eginiko txotx bolada berriaren aurkezpen ekitaldian. Halere, "kopuru murriztagoa izanda, izaera handiagoko sagarra etorri da gorputz eta kolore aldetik".

46 sagardotegietan

Zenbakitan, ia 500 hektareatan, bi milioi kilo pasatxo sagarrek, 250 sagargileen 1,3 milioi

sagardo litro inguru ekoitzi dira Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenaren egiaztapenarekin. 46 sagardotegietan (42 Gipuzkoan, 3 Bizkaian eta 1 Araban) dastatu ahalko da Euskal Sagardoa eta gehiago izan daitezke etorkizunean. Izan ere, "Iparraldeko sagardogileak 2025eko uztan Euskal Sagardoan sartuta egotea espero da eta Nafarroakoak ondoren". Horrez gain, "azken urteetako bidea jarraituta, Euskal Sagardo desberdinak izango ditugu merkatuan"; geroz eta aukera zabalagoa, "kalitate geroz eta handiagokoa".

Horregatik, Euskal Sagardoa Jatorri Deitura izendapena Euskal Herri osora hedatzeko eta sektorea bateratzeko egiten ari den lana irudikatu nahi izan zuten iragan asteko aur-

kezpenarekin. "Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagardogileez gain, Nafarroa eta Iparraldekoak ere" egon ziren hitzordu horretan.

"Malus Bat"

Txotx denboraldi berriaz eta datoen erronkez mintzatu ziren sektoreko hainbat ordezkari. Ekoizpenaren balantzea egin zuen Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren lehendakari Maite Retolazak. Kopuru

"ORAINGOAN, IZAERA HANDIAGOKO SAGARRA ETORRI DA GORPUTZ ETA KOLORE ALDETIK"

gutxiago izateari esker, "gorputz dezentekoa aterako da, usaintsua. Toki bakoitzak bere ukitua izango du eta onena kupeltegi bakoitzera joatea izango da dastatzeko", egin zuten gonbita.

"Malus Bat" plan estrategikoa hartu zuen ahotan, bestalde, aipatu jatorri deituraren koordinatzaile Unai Agirrek, sektore barruko lankidetzatik "hurrengo hemezortzi hilabeteetan Euskal Herria lotuko duena", iragarri zuenez. Bere esanetan, jatorri deituraren egitaspora Iparraldean lehenik eta Nafarroa geroago batzeko egitasmoa abian dute. "Hori guztia ondo antolatzeko proiektu bat dugu; Malus Bat izena jarri dioguna. Euroeskualdera ditulaguntza eskatu dugu eta onartu egin digute", Agirrek berri eman zuenez. Honenbestez, datorren urte eta erdian, "Euskal Herriko eragileek bilera mordoa eta antolakuntza handi bat egin beharko dugu, juridikoki etorkizuneko jatorri deitura hori nolakoa izango den ikusi eta erabakitzeko eta, bestalde, plan estrategikoa martxan jarri eta zabaltzeko".

"Lanean segi behar dugu"

Erakundeetako ordezkariak ere hartu zuten hitza aurkezpen ekitaldi berean; tartean, Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburu Amaia Barredok. Ekoizpen garai zaila izan arren, "produktu bikaina eta kalitate gorenekoa" dastatzeko moduan izango garela nabarmendu zuen, sektorea zoriontzearekin batera. Aurrera begira, adierazi zuenez, "lanean segi behar dugu", egungo profil kontsumo berrietara egokitzen den produktu osasuntsu eta natural hau ezagutzeko. Berriki, Japonian gertatu moduan, jatorri deitura hau mugez gaindikoa izango dela epe motzean eta horrek jada sagardoa "oso ondo baloratzen duten" nazioartean asko in-



Euskal Sagardoa jatorri deituraren baitan lankidetzan diharduten erakundeetako ordezkariak.

—> dartuko duela ziurtatu zuen; "erreferentean bilakatuko gaitu". Izan ere, "mundu mailako mugaz gaindiko lehen jatorri deitura izango da". Horrekin batera, urrats honek "ekoizpen gaitasuna indartuko du".

Hitza hartu zuen baita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Diputatu Xabier Arrutik. Sektorereantzako foru dirulaguntzak izan zituen hizpide, ez direla sagarrondoetarako soilik ohar-tarazi zuen, baita horien lan-ketarako eta sagarra biltzeko tresneriarentzat ere. "Azken batean, gu bultzatzen ari gara, ez da proiektu sektorial bat, herri proiektu bat baizik".

Arabako Foru Aldundiko nekazaritza alorreko foru diputatu Noemí Aguirrek herrialde horren potentzialtasuna nabarmendu zuen. "Departamentutik sagarrondoek hektareak hazten segitzea da asmoa", azken urteon ildotik, "sektorea egiten ari den lan handiari esker edota ekoizpena sustatzeko dauden dirulaguntza lerroei esker". Horretarako, Aguirreren esanetan, "sektore oso profesionalizatua dugu, lurrazala dugu, klima baldintza egokiak ditugu. Apustua egin dugu eta potentziala argia da".

"Gure nortasunaren ezaugarrietako bat"

"Gipuzkoaren bereizgarritzat" jo zuen txotx denboraldia Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Diputatu Azahara Domínguezek, sagardotegietara joan etorriak modu jasangarrienean eta seguruenean egiteko deia egin zuen. Horretarako, "denboraldiak iraun artean, Lurralde buseko zerbitzua indartuko dugu" asteburuetan. Aste barruan, bestalde, "taxi zerbitzua indartuko dela" berri eman zuen eta, beraz, "txotx denboraldi hau historikoki ondoen konektatua" egongo dena izango dela, Donostialdeko erregimen bereziko eremua abian jartzeari esker. "Gozatu ezazue modu seguruan eta arduratsuan txotx denboraldi honetaz", dei egin zuen Dominguezek.

"GU BULTZATZEN ARI GARENA EZ DA PROIEKTU SEKTORIAL BAT, HERRI PROIEKTU BAT BAIZIK"

Euskal kulturari estuki lotutako Euskal Sagardoa sustatzeko "elkarrekin jorratu behar dugubidea" nabarmenduzuen, azkenik, Eusko Jaurlaritzako Ostalaritza eta Turismo Zuzendari Clara Navasek. Sektorearen batasuna goraiatu zuen. "Plazerra da hemen egotea eta ikustea bat eginda gaudela, elkarrekin lanean, Euskadi eta sagardoa erakar-garritasun turistikoaren mapan jartzen". Izan ere, bere esanetan, "sagardogintzaren sektoreak helburu bakarra baitu, kalitatezko Euskal Sagardoa ekoiztea eta hori gure bezeroei eskaintzea". Ahal bezainbesteengana heltzeko, "hainbat ekintza ere egingo ditu sektoreak urte osoan zehar", iragarri zuen aipatu Jaurlaritzako ordezkariak, "azken finean, bertako plazer hori delako gu denon helburua eta guk zuengana iristeko daukagun bidea".

"PLAZERRA DA HEMEN EGOTEA ETA IKUSTEA BAT EGINDA GAUDELA, ELKARREKIN LANEAN"

Lekua hartzeko garaia

Aginaga, Usurbil eta Zubietako sagardotegi gehienak zabalik dituzue jada. Aurreko astetik, Aginaga, Aialde-Berri, Iruin eta Urdaira sagardotegiak. Ostegunean emango diote hasiera txotx boladari Saisarren, edota hilaren 24an Araetan. Sagardotegi gehienetarako erreserbak online egin ahalko dira Euskal Sagardoaren Ibilbidearen sagardoa. eus bidez. Euskal Herriko 70 "sagardotegien bilatzailea duzue bertan".

Bertako sagardotegiak

Aginaga sagardotegia:
943 36 67 10
aginagahotela.com

Aialde-Berri sagardotegia:
943 365 031
aialdeberri.eu

Araeta sagardotegia:
943 362 049
araeta.com

Arratzain sagardotegia:
623 460 819
arratzain.eus

Iruin sagardotegia:
943 361 229
iruinsagardotegia.com

Saizar sagardotegia:
943 37 39 95
sidrassaizar.com

Urdaira sagardotegia:
943 372 691
urdairasagardotegia.com

Hirugarren xake topaketa antolatu dute udal liburutegian

Urtarrilaren 24ko saioa, 6 eta 9 urteko gazteentzako izango da eta urtarrilaren 31koa, 10 urtetik gorako gaztetxoentzat.

Jolas honen inguruko hirugarren tailerra eta topaketa antolatu ditu Sutegi udal liburutegiak urtarrilaren 24rako eta 31rako. Adin tarte eta trebetasun maila ezberdinei zuzendurikoentzako saioak izango dira hilabete amaierako horiek. "Lehenengo saioan, formazio txiki bat eskainiko da eta ondoren torneotxo bat egingo dute partaideek; bigarenerako xakean jokatzeko jakin behar da, zu-

zenez torneo bat jokatuko baita", ohartarazi dute udal liburutegitik.

3. Xake Tailerra eta Topaketa Sutegin

Urtarrilak 24, ostirala

• 17:30-19:00 III. Xake Tailerra: 6-9 urte arteko haurrentzat, LH4 mailara artekoentzat. Oharra: oinarritzko ezagutzen azalpena eta torneo txikia.



Breogan Estévez liburuzainak bideratuko du xake topaketa bikoitza.

Urtarrilak 31, ostirala

• 17:30-19:00 III. Xake Topaketa: LH5etik aurrerakoentzat, 10 urtetik gorako gaztetxoentzat. Oharra: parte hartzeko xakean jokatzeko jakin behar da. Parte hartzaileek elkarrekin jokatuko dute.

Bideratzailea: Breogan Estévez, udal liburutegiko liburuzain laguntzailea eta xake jokalaria.

Izen-ematea:

Aurrez, Sutegi udal liburutegian bertan. Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Joxan Artzeri hitzak, bere heriotzaren zazpigarren urteurrenean

Sortzaile usurbildarra zendu zenetik zazpi urte bete diren honetan, Joxan Artze oroitzeko aukera eman dute Sutegi udal liburutegian, guztion eskura jarritako erregistro liburuaren bidez.

Zazpi urte bete berri dira, Joxan Artze zendu zenetik. Sortzaile usurbildarra oroitu eta omentzeko aukera izan da beste behin, Usurbilgo Udalaren eskutik.

2018ko urtarrilean bertan, Udalak herritarren esku jarritako erregistro liburuaren berriz ere herritarren eskura jarri du urtemuga honetan, omenaldi

hori idatziz eskaintzeko. Ohitura hari segida eman nahi izan diote modu horretan, bera zendu zenetik zazpi urte bete diren honetan.

"Joxan Artzeren olerkiak, azken detaileraino sakonak"

Urteurrenarekin bat, Igor Goitia Morak Joxan Artzeren ibilbide artistikoari buruzko ar-



Udal liburutegian, erregistro liburu hau jarri dute herritarren esku.

tikulu bat plazaratu du zuzeu. eus agerkari digitalean." Joxan Artze (Hartzabal; Hartzut) zinez artista polifazetikoia izan genuen, olerkari, musikari, antzezle-antzezleri, txalapartari...zein asko-asko-

tan aipatu diziplina horien arteko nahasketatik, batean edo besteren batetik ari ote zen argiegi jakin gabe, ezin etiketatuzko artista hutsa, artista peto-peto", Igor Goitieren esanetan.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81



Euskaraldia maiatzaren 15ean hasi eta 25ean amaituko da.

Hiru urtemuga, Euskaraldia eta hamaika hitzordu 2025. urtean

2025ean sartu berritan, urte berrirako erronkak eta planak egiteko unea izan daiteke batentzat baino gehiagorentzat. Usurbilen ere ez da faltako hitzordurik, datozen hamabi hilabeteotan. Bizi asko dator aurtengo urtea ere, hamaika egitasmo eta ekitaldirekin.

Segidan, haietako hainbat bildu ditugu zerrenda horretan. Ohiko ospakizun, azoka, herriko eragileen ziklo eta egun bereziekin batera, ezohiko hitzordurik ere izango dugu estreinatuta berri dugun urte honetan. Urrunago joan gabe, urtarrilaren 25ean, Odolaren Mintzoa agurtzeko jaialdi berezia izango da frontoian.

Odol Emaileen elkarteak 50 urte bete ditu

Agur festa horrez gain, urtemuga berezian murgilduak izango dira beste hiru herri eragile ere. Izan ere, hasteko, 50 urte bete zituen iaz, Usurbilgo Odol-Emaileen Elkarteak. Mende erdi horri lotutako zenbait ekimen iragarri ditu bilguneak asteotarako.

Ziortza Elkarteak eta Zumarte Musika Eskolak, 40na urte
40 urte beteko dituzte, bestalde, 2025. urte honetan

Zumarte Musika Eskolak eta Ziortza Gazte Elkarteak. Zumarte azaroko Santa Zezili bezperako ekitaldien bueltan murgildu zen ospakizun aro honetan.

Hilero ekimen berezi bat iragarria du uda atarira arte. Ekainean urtemuga berezi horri gorazarre egiteko jaialdia iragarria dute. Ziortzak ere gauza bera egingo du udaberri honetan.

Lehenago, bestalde, Euskaraldia ospatuko da udaberriari. Momentuz, hemen doakizue 2025eko deialdien behin-behineko egutegia:

2025eko hitzordu nagusiak

Urtarrila:

- Hilabeteazehar: Odol-Emaileen Elkartearen 50. urtemugako ekimenak.

- Urtarrilak 25: Odolaren Mintzoaren agur biraren amaierako jaialdia.
- Urtarrilak 26: Irisasi BTT Hotzak Akabatzen.

Otsaila:

- Lehen hamabostaldian: NOAUA! Kultur Elkartearen Kulturaldia.
- Otsailak 4: Santa Ageda bezpera.

Martxo:

- Martxoak 1: Inauteri Festa.
- Martxoak 8: Emakumeen Nazioarteko Eguna.
- Hilabeteazehar: 40 urte beteko dituen Zumarteren Soinurbil Musika Astea.

Apirila:

- Apirilak 5: Dantza Eguna.
- Apirilak 12-13: "Ibai-Ondo Backyard" erronka Santuenean.
- Apirilak 23: Liburuaren Eguna.

Maiatza:

- Maiatzak 4: Andatza Eguna.
- Maiatzak 15: San Ixidro Eguna.
- Maiatzak 15-25: 4. Euskaraldia.
- Maiatzak 18: Sagardo Eguna.
- Hilabeteazehar: Ziortzaren 40. urtemugako ekimenak.

Ekaina:

- Ekainak 7: Ikastola Eguna.
- Hilabeteazehar: 40. urtemugako Zumarteren jaialdia.
- Ekainak 24: San Juan eguna. Kalezarko jaiak.
- Ekainak 28: LGBTQ+ Harrotasun Eguna.

Uztaila:

- Uztailak 2: Santixabel Eguna. Usurbilgo jaiak.
- Uztailak 25: Santio Eguna. Zubietako jaiak.

Abuztua:

- Abuztuak 3: San Esteban Eguna. Xanisteban jaiak Urdaiaigan.
- Hilabete amaieran: Atxegaldeko jaiak.

Iraila:

- Hilabete erdialdean: Santueneko jaiak.

Urria:

- Urriak 4: San Praixku Eguna. Aginagako jaiak.

Azaroa:

- Azaroak 1: Artisau Azoka, Aitzaga elkartearen eskutik.
- Hilabeteazehar: Txalaparta Festa, Mundualdia.
- Azaroak 22: Santa Zezili Eguna. Bezperan, Zumartekoen ospakizunak.
- Azaroak 25: Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna.
- Azaroak 30: Erle Eguna.

Abendua:

- Hilabete hasieran: Hurbilgoren Udazkeneko Azoka.
- Abenduak 3: Euskararen Eguna.
- Abenduak 14: San Tomas azoka, NOAUaren eskutik.
- Abenduak 24: Mari Domingi eta Olentzeroren etorrera.
- Abenduak 31: Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketa.

Sukaldeko tresnen izenak ezagutzen al dituzu? Den-denak? Hona hemen horietariko batzuk. Lotu irudi bakoitzari bere izena.

- ELTZEIA
- BIRRINGAILUA
- LABANAK
- AZAL-KENTZEOA
- ERRETILUA
- IRAGAZKIA, TXANOA
- GATZONTZIA
- MIKROUHIN-LABEA
- ESTALKIA, TAPA
- ARRABOLA



- XUKADERA
- BURRUNTZALIA
- AMANTALA
- MOLDEAK
- ESKULARRUA
- ZUKUGAILUA
- KORTXO-KENTZEOA
- IRABIAGAILUA
- BITSADERA
- ZARTAGINA
- ESPATULA

Zein da zein



Hizki-Mizki

Eraman hizki bakoitza bere geziak seinatzen duen borobilerara eta tresna honen izena agertuko zaizu.

X A I L O G U T I G A R



Itzala


Zein da orein jauzilari honi dagokion itzal zuzena?



DOMINOAN

Bide batez, margotu zure gustura.


Osatu lauki zuriak elurretako domino zati hau zuzena izan dadin.



Lapurrak!

Zenbat lapur ikusten dituzu etxe barruan, inguruan edo barrura sartu nahian?

Bide batez, margotu.



Hara!

Besteren a baimenik gabe hartzen duenari nola esaten diozu zuk? Lapur? Badu beste izenik ere, hemen sei aurkituko dituzu. Zirriborra itzazu zuzenak ez diren hirurak.

TXORIBURU

ZIRTOLARI

XISKALARI

EBASLE

LITXARRERO

HARRAPARI

HIGUINGARRI

ESKULUZE

OHOIN



Engainagarriak

Sei biribil hauetatik bi iruditik hartuta daude eta gainontzeko laurak engainagarriak dira, hau da, ez datoz guztiz bat irudiarekin. Bereiz itzazu.



Eman kolorea gure laguntxo hauei, merezi dute eta.



Hamarrekoa

Aurkitu bi eskiatzaileen artean dauden aldeak. 10 dira guztira.



"Fauna", hori izan zen iazkoan proposatu zen tematika. NOAUA

Mozorro festarako gaia, zuen esku

Batzuk dagoeneko galdezka hasiak daude. Ea zein izango den aurtengo gaia, mozorrotzeko tematika. Bi asteeko epea duzue gaiak proposatzeko.

Gabonak igarota, negu parteko hurrengo ospakizunei begira gara jada NOAUA! Kultur Elkartean. Iaz bezala, otsailean egingo dugun Kulturaldiaren ostean helduko dira Inauteriak.

Otsailaren 28an

Inauteri Festa berandu dator aurtengoan. Inauterietako igandea martxoaren lehenean egokitu da eta haren bezperan, otsailaren 28an larunbata ospatuko dugu Usurbilen.

Proposamenak whatsappz edo emailez bidali

Zertaz mozorrotu nahi zenukete? Iaz bezala, gaia zuen esku. Proposamenak egiteko aukera duzue egunotan, bideotatik: elkarte@noaua.eus helbidera email bat bidalita, edota whatsapp mezu bat helarazi dezakezue 688 807 336 telefono zenbakira.

Azken urteotan izan ditugun mozorrotzeko gaiak edo aitzakiak ez errepikatzearren, gogora dezagun azkeneko bi hamarkada pasatxo hauetan

jaialdi honetarako hautatu direnak:

Aurreko Inauteri Festetako mozorroak

- 2025/3/1: ?
- 2024: Fauna.
- 2023: Filmak.
- 2022: Gai librean.
- 2021: Osasun krisialdia tarteko, ez zen Inauteri Festarik antolatuta.
- 2020: Dantza.
- 2019: Jolasak.
- 2018: Ospetsuak.
- 2017: Ingurumena.
- 2016: Lanbideak.
- 2015: Ipuinak.
- 2014: Erdi Aroa.
- 2013: Musika.
- 2012: Mitologia.
- 2011: Itsasoa.
- 2010: Zirkoa.
- 2009: Olinpiar Jokoak.
- 2008: Xomorroak.
- 2007: Brasil.
- 2006: Marrazki bizidunak.
- 2005: Usurbil, Oesteko herri.
- 2004: Hollywood.
- 2003: Munduko kulturak.
- 2002: Extralurtarrak.

Usurbilgo Odol-Emaileen Elkarteak, 50. urtemuga betean

Mende erdia bete zuen iaz Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak. Aste hasierako odol-emate saioarekin batera, beste bi ekimen iragarri dituzte asteotarako.

Urtarrilak 13-26

Erakusketa Sutegin.

Urtarrilak 26, igandea

• 14:00 Bazkaria eta 25, 40 eta 60 aldiz odola eman dutenen

artean oroigarrien banaketa egingo da Artzabalgo jate-txean.

• Izen-ematea, urtarrilaren 20a baino lehen.

• Izena emateko telefono zenbaki hauetako batera deitu behar da:

- 943 363 102 (Agustina)

- 619 125 644 (Mari Jose).

• Prezioa: 32 euro.

• Antolatzailea: Usurbilgo Odol-Emaileen Elkarteak.



Easo abesbatzako kantariak Salbatore elizan arituko dira datorren astean.

"Katedraletako meza" ikuskizuna Salbatore elizan

40 urte betetzera heldutako Zumarte Musika Eskolak urtemuga berezi hau herriarekin eta herrian ospatu nahi du. Azaroko Santa Zezili bezperako ekimenekin bertsoan ekin zioten ospakizun ziklo honi. Orduetik ekainera arte, hilero ekimenen bat ospatu asmo dute.

Urtarrilaren 24an, arratsaldeko 19:00etan

Urtarrilari dagokionean, "Katedraletako meza" ikuskizuna programatu dute urtarrilaren 24an 19:00etan Salbatore elizan. "2025ean 40 urte beteko ditu Zumarte Musika Eskolak.

Hamaika ikastaro, emanaldi eta bizipen. Hauek denak oroi-tu eta omentzeko ekitaldi ugari izango dira 2025ean. Ekitaldi hauen barruan kokatzen da Easo Gazte eta Easo Kapera Gregorianista abesbatzen "Katedraletako meza" ikuskizuna", antolatzaileen esanetan. Zumartek berri eman duenez, parte hartzaileok bilduko dituzte hitzordu horretan:

• Easo Gazte (zuzendaria: Gorka Miranda) eta Easo Kapera Gregorianista abesbatzak (zuzendaria: Demetrio Esnaola).

• Organo-jolea: Ana Belén García.

Zenbait dirulaguntza deialdien ebazpenak kaleratu ditu Udalak

Norbanakoen bizilekuetan igogailuak instalatzeko nahiz Kabiene elkarlan gunean urtebetez proiektuak garatzeko dirulaguntza deialdien behin betiko ebazpenen berri eman du Udalak.

Igogailuak ezartzeko dirulaguntza deialdia

Batetik, norbanakoek haien bizilekuetan igogailuak instalatzeko deialdiari lotutako ebazpena da plazaraturikoa. 2024ko urtarrilaren 19an argitaratu zituen Udalak "Usurbilgo udalerrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua instalatzeko 2024 dirulaguntzen oinarriak". Epealdi barruan, 40 eskabide egin ziren. Apirila amaieran, ordea, "erabakia ebatzi gabe geratu zen, igogailuak instalatzeko dirulaguntzaren partida handitzea aztertze baldintzapean".

Urrian, dirulaguntza lerro honetara beste 10.000 euro bideratzea erabaki zuen Udalak. Aurrez 10.000 euroko partida gordea zuenez, guztira 20.000 euro bideratu ditu deialdi honetara. Geroko hamar eguneko epealdian ez zen alegaziorik aurkeztu. "Halere, ebazpen-proposamena ez

zenez bere osotasunean argitaratu, berriro argitaratu zen jendaurrean jarri zen 10 egunez.

Iragarkia 2024ko abenduaren 3an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 233. zenbakian. Jendaurreko epealdian ez da inolako alegaziorik izan". Behin betiko ebazpena argitaratu zuen Udalak iragan ostiralean.

'Hasiz Hazi' beka deialdia

Bestalde, urtarrilaren 10eko aipatu aldizkariaren bidez, Hasiz Hazi beka deialdiari lotutako ebazpena ere plazaratu zuen Udalak. Gogoan izan, urtebetez Kabiene elkarlan gunean haien proiektua garatzea ahalbidetzen zaie ekintzaileei beka horren bidez, "lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatze leku bat izan dezaten".

Deialdi honen baitan, eskabideak aurkezteko bi epealdi finkatzen ditu Udalak. 2024ko



Igogailua instalatzeko udal dirulaguntza deialdira 40 eskabide aurkeztu ziren.

lehenengo epealdi hori urtariletik maiatzaren 31ra artekoa izan zen. Tarte horretan, inork ez zuen eskabiderik egin. Bigarren epealdia, ekainetik irailaren 30era artekoa izan zen. Epealdi horretan bai, proiektu bat aurkeztu eta onartu zuen Udalak.

'Usurbil Zabalik', lokal hutsak aktibatze ekimena

Azkenik, lokal komertzial hutsetan jarduera ekonomiko berriak abiatzeko laguntza lerro bat ere badu Udalak, egitasmo martxan jartzeko lehen gastuak eta lehen bi urteko alokairu gastuak laguntzearekin duena. Aurtengo deialdiaren baitan, eskaera bakarra aurkeztu da, Iñurri minbiziaren aurkako elkartearena. Izan ere, irailean Usurbilen egin zuten jaialdiaren atarian NOAUA! bidez iragarri zuten moduan, bilgune honek egoitza fisikoa izango du aurrerantzean Usurbilen, Kale Nagusia 10 zenbakian.

2024ko udal dirulaguntzen ebazpenak

Igogailuak instalatzeko dirulaguntza deialdia

- Aurkezturiko eskaerak: 40.
- Onarturikoak: 33.
- Emandako dirulaguntza: 20.000 euro.

'Hasiz Hazi' beka deialdia

- Aurkezturiko eskaerak: 1.
- Onarturikoak: 1.
- Emandako dirulaguntza: 1.742,40 euro.

'Usurbil Zabalik'

- Aurkezturiko eskaerak: 1.
- Onarturikoak: 1.
- Banatuko duten laguntza: 21.670 (kopuru horren barne, aurtun onarturiko eskaerak jasotako laguntza baita iaz aurkezturiko beste hiru eskabideei bigarren urtez emandako dirulaguntzaren zenbakia).

Alokairu sozialeko udal etxebizitzetara lotutako erabakiak, alegazio epean

Alokairu sozialeko udal etxebizitzetara lotutako bi erabaki onartu zituen hasieraz udalbatzak abenduaren 19ko osoko bilkuran. Biak ala biak alegazio epean izango dira hilabetez, Udalak urtarrilaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren berri eman zuenez.

Lau hobekuntza

Batetik, bizilekuon esleipena arauturiko udal ordenantza lau hobekuntza txertatzea onartu zuten, besteak beste, logela kopurua eta bizikidetzaren unitatea zenbaterako den eta itzarote-zerrendako antzinatea ere kontuan har-

tuko da aurrerantzean, etxebizitzetara lotutako bestelako "arautegi sektorialetara" egokitzearekin batera.

Udal erregistroaren araudia

Alegazio epealdian izango da hilabetez baita, etxebizitzaren hauen eskatzaileen udal erregistroaren araudia ere. Aipatu udal jabetzako alokairu sozialeko bizilekuren bat eskuratzeko erregistro

horretan izena eman beharra dago. Udalbatzak urte amaieran hartutako erabakiak traste hori erraztea du helburu. "Udalak NISA Eren Nodoaren bidez, interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruzko beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egitea ahalbidetu nahi da", interesduna horren aurka berriaz agertzen ez bada.



Beñat eta Joanes Txueka, Luken Arkarazo eta Jokin Irastorza, Odolaren Mintzoako kideak, haiek helarazitako argazkian.

"Pozgarria da, ziklo hau ondo ixten jakin izan dugula ikustea"

ODOLAREN MINTZOA MUSIKA TALDEA

Joanes eta Beñat Txuekak, Jokin Irastorzak eta Luken Arkarazok 18 urteotako ibilbide oparoa amaituko dute urtarrilaren 25eko jaialdian. Haien agurreko elkarrizketa duzue segidan.

Lagunarteko jaialdi gisa definitu daiteke urtarrilaren 25eko hitzordua?

Odolaren Mintzoa agurtzeko Usurbilgo musikagintzaren festa eguna izango da. Hamar talde ariko gara guztira, goizetik gauera. Usurbilgo sorkuntzaren erakustaldia izango da. Gurekin badoa belaunaldi bat, baina gazte belaunaldi indartsua dator. Ilusioa egiten digu horrek.

Noiz eta nolatan erabaki zenuten agur esatea?

Azken diskaren aurretik uzteko tentazioa izan genuen. Horren ostean, entseatu gabe denbora generaman, kontzertu gutxiago genituen. Ez gara

talde profesionala izan, ba-koitzak bere bizimodua du. Disko bat atera eta esperotako adina kontzertu ez ziren ateratzen. Kantu zerrenda berarekin ari ginen, inertzia horri tiraka. Inertzia ere gertzen joaten da marruskadurarekin eta gelditu egin gara. Ibilbideak honaino eman du. Naturalki gertaturiko zerbait izan da. Pozgarria da, ziklo hau ondo ixten jakin izan dugula ikustea.

14-15 urterekin hasi zineten. Laguntasuna izan zuen abiapuntu Odolaren Mintzoak?

Lukenen etxabea hasi ginen entseatzeko. Ordu asko sartzen genituen ilusio guztiarekin.

Lokala polita zen, Negu Gorriak taldeak bertan entseatzeko zuen bere garaian eta haien karte-
lez josia zegoen. Horrek ere bere epikotasuna ematen zion tokiari. Hor hasi ginen kanta sortzen, bertsioak jotzen. Estreinakoz, Udarregi ikastolan, inauterietan eskaini genuen lehen emanaldia. Polita izan

"GUREKIN BADOA BELAUNALDI BAT BAINA GAZTE BELAUNALDI INDARTSUA DATOR"

zen. Bazkalosteko festarako punkiz eta rockeroz mozorrotzeko ideia atera zen. Gero, lehen kontzertua 2007ko Santueneko festetan eskaini genuen.

Hasieratik zuen kanta sortzen hasi zineten.

Nahiko hasieratik. Santueneko kontzerturako bi kanta eginak genituen. Bertsioak egiten hasi ginen arren, behin gure kantak sortzen hasitakoan, talde erabat sortzailea izan gara.

Santuenea aipatu duzue, herriko festen biran hasi zineten kontzertuekin?

Lehen proposamena Santueneko festen antolakuntzatik jaso genuen. Gero, bigarrena Añorgako gaztetxetik. Pare bat kanta jo genituen bertan eta ekipoa izorratu zen. Hara, instrumentuak eskutan hartu eta autobusez joan ginen. Itzulera, parrandara joandakoekin egin genuen, instrumentuak haien ibilgailuetan sartuta.

Zuen sorkuntza lanek nola irudikatzen dute taldearen bilakera?

2008, 2013, 2017 eta 2022a izan ziren disko urteak. Maketak ilusioa eta esperimendazioa irudikatzen ditu. Lehen diska atera genuenean, hor indar handia jarri genuen. Talde izaera nabarmendu zuen. Geroako heldutasuna irudikatuko luke.

Zuen ibilbidean, hainbat talde desagertzen eta sortzen ikusiko zenituzten?

Pentsa, 18-35 urte arte inguruan beti bada Odolaren Mintzoa zalerik egun eta izan direnak. Askok ez dute ulertzen 18 urteetan kaleratutako disken artean hainbesteko tartea egotea. Lukenen etxabetik, egungo Haur Eskolako eraikineran joan ginen baina han ez zen lekurik eta Harane gaineko lokalean segi genuen. "Kalexar records" diska mitiko

→ hura atera zen garaian, hor zeuden Mendeku Itxua, Despervicio, Epok, Insitu... Hori da gure aurreko belaunaldia. Guk, Rukula, Natali, Hotzikara edota Mendeku Itxuarekin egokitu ginen askotan. Despervicioarekin ere jo izan genuen lehen urteetan. Gerora sortu ziren Zapparra, Iñorkiñak eta azken urteotakoak dira Viafara, Ameba... Zenbat talde! Lekukoak izan gara Usurbilen zer nolako musika mugimendua egon den urteetan zehar, indartu eta aberastu dena. Zortea izan dugu, urteetan bizirik mantentzearen ondorioz, partekatu dugulako oholtza herriko talde oso desberdinekin, belaunaldi ezberdinekin. Pentsa, Sen taldearekin bitan jo genuen eta gure agurreko jaialdirako Txiskeroak agertu dira.

Gaztetxe ugari ezagututakoak zarete.

Txokoaldeko Akerran, Usurbilgoan, Añorgakoan... Gaztetxeen bueltan askotan jo izan dugu, askotariko leku txiki eta modu askotan. Otar-teko asko jandakoak gara, xoxik ikusi gabe. Talde askorekin jo izan dugu. Ia Euskal Herriko lurralde guztietan izan gara. Maketa lehiaketetan parte hartu dugu, finalera heldu ere bai.

Garaian garaiko testuingurura lotuak egon zarete, azkeneko bi diskak adibide ederrak ezta?

Odolaren Mintzoaren kasuan soilik ez, orohar, kultur sorkuntza beti dago garaian garaiko testuinguru sozialari lotua. Betiko bi inspirazio iturri ditugu: pertsonen arteko maitasuna eta herriarekikoa. Bi gai horiek landu ditu Odolaren Mintzoak. Gai lokalak ere bai, erraustegiaren borrokan genbiltzan garaian, Minabizi abestiarekin egin bezala. "Hauskor" azken lanean, gai orokorrakoak, barrura begirakoak ere txertatu genituen. Hor dago, "Dos pueblos una voz" herrien arteko elkar-



Odolaren Mintzoak hemezortzi urteko ibilbidean kaleraturiko sortze lanak.

tasunari lotutako kanta oso berezia, gertaera historiko bati lotutakoa.

Zuen azken laneko azken abestia "Azkenak". Despedida kutsukoa zen?

2022an atera genuenean galdetu ziguten ea despedidakoa ote zen. Asmoa ez zen hori. Baina ondo etorri zaigu azkeneko jaialdi hau promozionatzeko. Azken *single* bezala, hor geratuko da. Bere garaian, kanta asko izaten genituen, aukeraketa egin behar izaten genuen. Orain, azken kontzerturako prestaketetan, urteetan jo gabeko kanta batzuk berreskuratzen ari gara. Abesti batzuk arrotzak zaizkigu.

Sorkuntza eta kontsumo moduen aldaketa sakona ezagutu duzue baita urteotan.

Digitalizazioa ezagutu dugu. Diska mistoak egindako garaia

ezagutu dugu. Gaur egun, famatuena zerrendak entzuten dituz jendeak. Lehen, diskoari entzuteko bere denbora ematen zitzaion; gaur egun, horretarako pazientzia gutxiago dago. Kantuak ez dira proiektu baten parte gisa entzuten, abesti solte moduan eta ibilbide oso laburra izaten dute. Instrumentuz betea egotetik haien presentzia falta izatera igarotako oholtza gaina ezagutu dugu baita. Orain, norberak etxean bertan sor dezake abesti bat. Gu hasi ginenean mugikorrik ez genuen, entsegu batean kanta bat sortzen hasi eta hurrengorako ahazten bagenuen akabo. Baliabide gehiago daude egun taldea sortzeko, kontzertuak lotzeko. Euskal musika estilo aldetik ere ikaragarri aberastu da. Aldarrikatu behar da, Usurbil oso herri rockeroa dela. Kilo metro karratuko ez dakigu

halako hainbeste talde izango dituen Euskal Herriko beste herriren batek. Rock ikuspegi hori herrian, bereziki emakumeen artean zabaltzen Zumarretetik, besteren artean Ixakek eginiko lana nabarmendu behar da.

Itxiera nori eskaini nahi diozue?

Lehenbizi, Kaki Arkarazori, beti hor egon da. Baita Martxel Arkarazori, garai batean asko lagundu zigun. Pako Agudori ere bai, etapa polita bizi izan genuen berarekin eta babes handia eman zigun Galizara joan ginenean. Musika irakasle guztiei besarkada bat hemendik. Eskerrak hasieran lagundu ziguten guztiei, diskoetako diseinatzaileari, bideo klipekin lagundu gaituztenei, Udalarai entseatzeko emandako erraztasunengatik, jai batzorde eta gaztetxeetako antolatzaile guztiei, etxekoei, lagunei, beti egon dira hor animatzen. Eta azken jaialdi honen antolakuntza lanetan lagundu gaituztenei ere esker. Lan-taldea osatu dugu. Bazkaria Aitzaga elkarteak lagunek prestatuko dute. Gaueko txosna Ernaik jarriko du. Kontzertua antolatzen ere Iñaki Irazusta eta Mattin Iribar izan ditugu.

"ZORTEA IZAN DUGU, PARTEKATU DUGULAKO OHOLTZA HERRIKO TALDE OSO DESBERDINEKIN"

"JAIALDIRAKO, URTEETAN JO GABEKO KANTA BATZUK BERRESKURATZEN ARI GARA"



Odolaren Mintzoa taldeko kideak, bere agurrean bidelagun izango dituzten herriko musikariek.

Jaialdirako sarrerak erosteko deialdia

Jaialdi bakar eta berean agurtuko du Odolaren Mintzoa musika talde usurbildarrak bere hemezortzi urteko ibilbidea urtarrilaren 25ean, herri sorkuntzaz blaitua egongo den egun osoko hitzordu sortarekin. Adi, sarrerak garaiz erosteko deia egin dute.

Jaialdi bakarra herri mailan. Halakorik egin denaren aurrekaririk ez da Usurbilen. Izan ere, ia hamabi orduko kontzertu gauaren baitan agurtuko du Odolaren Mintzoa talde usurbildarrak hemezortzi urteko ibilbidea. Herriko musika sorkuntza oholtza gainera eramango du etenik izango ez duen jaialdiak. Agurtuko duten taldetik zenbait xehetasun aurreratu dizkigute, segidan datorren egitarauarekin batera.

Bi oholztatan txandakatuko dira musika taldeak

Usurbilen inoiz gertatu ez bezala, bi oholta izango dira frontoian, txandaka batean eta bestean emanaldiak etenik gabe eskaini daitezzen. Horrez gain, txozna solidarioa izango da. Bertan kontsumitutakotik jasotakoa, gazte antolakundearen jarduna-

gatik isundutako Ernaiko 133 kideek abiarazitako auzibidera bideratuko dute.

Egun osoko festa

Jaialdia halere, lehenago hasiko da, eguerdian Fanfarrikant taldekoen itzulerarekin. Segidan, bazkaritan bilduko dira, gaueko jaialdiko musikariak, Odolaren Mintzoak bidelagun izan dituen senide eta lagunak, zaletuak eta nahi duen oro. Ekitalditxo batekin emango diote hasiera. Bazkaloste musikatua izango dute gero, une hau ere herri sorkuntzaz blaitua izango da. Hain zuzen, eguerditik goizaldera, herriko hamar musika taldeek girotuko dute Odolaren Mintzoaren "Azkenak" jaialdia. Aurrekaririk ez duen egun berezi eta bakar honetarako sarrerak erosteko deia egin dute antolatzaileek. Segidan dituzue xehetasunak:

"Azkenak" jaialdia

Urtarrilak 25, larunbata
Bazkალაuretik, Elektropapo herria girotzen.

13:30 Ekitaldia eta bazkaria Agerialdeko jantokian.

Ondoren, Anuk eta Elene.

17:30 Kontzertuak frontoian: Viafara, Hysteria, Zaparra, Mihise, Txiskeroak, Ameba, Rukula, Odolaren Mintzoa, Dj Jotatxo.

Bitartean, Ernairen aldeko txozna solidarioa.

Sarrerak: Aitzagan eta Txirritran eta usurbilkultura.eus plataforman.

Prezioak: 10 euro (kontzertuak), 25 euro (kontzertuak eta bazkaria).

IA 12 ORDUKO KONTZERTU GAU BATEKIN ESANGO DUTE AGUR

Irisasi BTT proban izena emateko azken egunak

Irisasi BTT proba hileko azken igandean izango da, urtarrilaren 26an, goizeko 9:00etan hasita eta izen-ematea zabalik egongo da hilaren 23 arte kronoak.com webgunearen bidez.

Txaleko bat opari

Aurten, gainera, opari moduan txaleko bana izango dute partehartzaile guztiek.

Bi ibilbide

Bi ibilbide izango dira aukeran: "bat luzeago eta teknikoagoa eta bestea laburragoa eta denek disfrutatzeko modukoa". Zeharkaldi horretan zehar, "anoa gune handi bat egongo da eta amaieran, frontoian beste bat".

Urtarrilak 26 igandea

- Ordua: 09:00.
- Irteera: Mikel Laboa plazatik.
- Bi ibilbide izango dira aukeran:
 - Motza 23km eta 650 metroko desnibelarekin.
 - Luzea 32km eta 950 metroko desnibelarekin.
- Izen-ematea: urtarrilaren 23ra arte, 30 euroren truke kronoak.com atarian.
- Oharra: izena ematen dutenek txaleko bat jasoko dute opari.
- Antolatzailea: Irisasi BTT.



Asteazkenero batuko dira eta Garazi Artolak gidatuko ditu entrenamenduak.

Lilatoirako prestaketak Emakumeon Etxean

Otsailaren 23an Donostian egingo den Lilatoia elkarrekin prestatu eta parte hartzeko deia egin zuen Emakumeon Etxeko talde sustatzaileak. Orduetik, gutxienez 44 emakumek eman dute izena.

Datorren otsailaren 23an Donostian egingo den 35. Lilatoia elkarrekin prestatu eta parte hartzeko deia egin zuen Emakumeon Etxeko talde sustatzaileak abendu hasieran.

Orduetik, gutxienez 44 emakumek eman dute izena. Igaro berri dugun ospakizun zikloaren ondotik, izena emandakoekin entrenatzen hasteko deia ere egin zuten. Aste

honetan hastekoak dira prestaketa saioekin; aurrerantzean, asteazkenero elkartuko dira, Garazi Artolak zuzenduriko prestakuntza saioetan.

"Hitz Esana" emanaldia

Bestalde, "Hitz Esana" emanaldia eskainiko du Mejillon Tigre kolektiboak larunbatean, urtarrilaren 18an, 19:00etan Kalezarko Pelaioenean kokaturiko Emakumeon Etxean. Emanaldirako gonbidapenak aurrez eskuratu ahalko dituzue usurbilkultura.eus plataforman.

Emakumeon Etxeko deialdiak

Urtarrilak 15, asteazkena

- 18:00-19:00 Asteazkeneko Lilatoirako entrenamenduen hasiera, Emakumeon Etxetik. Garazi Artolak gidatuko ditu.

Urtarrilak 18, larunbata

- 19:00 Mejillon Tigre kolektiboaren "Hitz Esana" emanaldia.

Informazio gehiago:

emakumeonetxea@usurbil.eus
943 371 112

Sagastien inguruko ikastaroa Potxoenean

"Etorkizuneko sagastiak: mentu-oin berriak: Geneva belau-naldia" izena du Alkartasuna kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak urtarrilaren 23rako 18:00etan Potxoenean antolatutako aurtengo lehenengo ikastaroak. "Txertaketa belaualdi berri honen ezagutze nagusiak azalduko dira: gaixotasunekiko duen erresistentzia handiagoa da, ekoizpen handiagoak lortzen ditu eta luraren nekea ez du pairatzen". Aitor Etxeandiak bideratuko duen saiorako izena doan eman ahalko da bideotatik: 943 361 114 / alkartasuna.eus

Ate irekien eguna antolatu dute Udarregi ikastolan

2025-26 ikasturterako ikastetxeetan HH, LH eta DBH zikloetan matrikulatzeko argibideen (egunegia, onarpen jarraibideak...) berri eman zuen Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak urtarrilaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bidez. Aurrematrikulazio kanpainari otsailaren 3an ekingo zaio. Ohi bezala, bi aste iraungo du epealdi horrek, otsailaren 14ra arte.

Urtarrilaren 25ean egingo da bisita gidatua

Testuinguru honetan, ohi bezala, ate irekien eguna antolatu du Udarregi ikastolak urtarrilaren 25erako, larunbaterako. "Ikastolari buruzko informazioa jaso nahi baduzu edo gu ezagutzera etorri nahi baduzu, urtarrilaren 25an ateari irekiak izango ditugu", udarregi.eus bidez iragarri dutenez. Hala egin nahi dutenek web orrialde horretan bertan duten formularioa osatu beharko dute. Informazio gehiagorako: 943 36 12 16 usurbil@ikastola.eus

Autobus zerbitzua, Aroztegiko proiektua gerarazteko manifestaziora

Baztango bailaran kokaturiko Lekarozen (Nafarroa) "228 familiabakarreko etxebizitza, 4 izarreko luxuzko hotela eta golf zelaia egin nahi dute herritarren borondatearen kontra. Horretarako Nafarroako Gobernuak Baztango udalari eskumenak kendu dizkio. Honez gain, nekazarien lurrak eta herri lurrak desjabetuak izan dira. Horrela herritarren erabakitze eskubidea ebatsi dute jauntxo batzuen mesedetan". Urteak daramate proiektua gerarazteko borrokan. Herritarren kanpaldibatek behin-behinean lanak gerarazi zituen 2021ean, nahiz

baimena baduten proiektu hori gerarazteko.

Kontua da, kanpaldi hartan parte harturiko zazpi lagun epaituko dituztela otsailean. "Orotara 20 urteko kartzela zigorra eta 56.000 euroko zigorra eskatzen zaie". Epaiketa horren harira, manifestazio nazionala deitu dute otsailaren 1ean Iruñean, "Lurraren defentsan, kriminalizazioarekin ez. Aroztegia gelditu!", aldarripean.

Autobus zerbitzua

Mobilizazioari nahiz epaituak izango direnei babesa adierazteko autobus zerbitzua antolatu du herritar talde batek

Usurbildik Nafarroako hiriburuko manifestaziora joateko. Mobilizazioa otsailaren 1ean 16:00etan abiatuko da Iruñeko epaitegien paretik. Hara joateko autobus zerbitzua, aldiz, eguerdiko 12:00etan abiatuko da Usurbilgo Oiaro kiroldegi ondotik. Aurrez, Aitzagan eman ahalko da zerbitzu hau baliatzeko izena.

"Zazpi herritar epaituko dituzte datozen hilabeteetan, eta honen aitzinean kalera ez ateratzea, epaiketa bera babestea da. Babesa eta elkartasuna, Aroztegiko auziperatuekin elkartasuna!", galdegin dute.

Bi aldaketa, Bidez Bide zerbitzuan

2025ean, bi aldaketa xertatu dituzte, Udalak Behemendi Landa Garapenerako Elkartearen bidez eskaintzen duen landa eremuko bizilagunentzako garraio egokituko zerbitzuan.

"Aldiro egiten da zerbitzua egokitzeko ahalegina, garaian garaiko beharrei eta joerei erreparratuta, eta hala izan da orain-goan ere", Udalaren arabera.

kaxkotik bere etxera edo base-rrira eramango da. Geltokian erabiltzailerik ez badago, ordea, ez da ibilbidea egingo", berri eman du Udalak.

Lehen aldaketa

Batetik, Usurbilgo kaxkotik etxera edo baserrira joateko, Kalezar-Arratzain-Aginaga ibilbidea hasteko ordutegiak mantenduko dira betiko tokian (kaxkoan) eta orduetan (07:30, 10:30, 13:30, 15:30 eta 19:00). "Ordu horietan, eremu horietako erabiltzailereren bat geltokian badago, zerbitzu pertsonalizatua eskainiko da, eta

Bigarren aldaketa

Bigarren aldaketa: "eremu horretako etxe edo baserrietatik kaxkora jaisteko, erabiltzaileek alde aurretik eskatu beharko dute zerbitzua, gutxienez egun bat lehenago, betiere ohiko ordutegien barruan (07:30, 10:30, 13:30, 15:30 eta 19:00). Bidez Bide zerbitzura telefonoz deitu beharko dute horretarako: 630 643 596".



Bidez Bide landa eremuko bizilagunentzako garraio zerbitzua da.

Bidez Bide zerbitzuaren erabiltzaileei, aldaketak martxan jarri aurretik jakinarazi zizkieten. "Horrez gain, dena den, gutun bana bidaliko da eremu horretako etxe eta baserrietara, aldaketan berri eman eta zerbitzuaren telefono zenbakia eskura izan dezaten".

Bi aldaketa hauek salbu, "gainerako ibilbideek bere horre-

tan funtzionatzen jarraituko dute", Udalak argitu duenez.

Moldaketa gehiago begi-bistan

Epe motzean, berriz moldatu beharko da Bidez Bide zerbitzua. Egun zehatza ezagutzen ez bada ere, laster hasiko dira, Txokoalden, Altonazko zubiaren obrak, eta horrek erabat baldintzatuko du auzotarren eguneroko mugikortasuna.

Sukaldeko tresnen izenak ezagutzen al dituzu? Den-denak? Hona hemen horietariko batzuk. Lotu irudi bakoitzari bere izena.

Baina izen bat falta da. Ba al dakizu zein tresnari dagokion?

ZEIN DA ZEIN

Hizki-Mizki

Eraman hizki bakoitza bere geziak seinatzen duen borobilera eta tresna honen izena agertuko zaizu.

Itzala

Zein da orein janzilari honi dagokian itzal zuzena?

DOMINOAN

Bide batez, margotu zure gaiturra.

Osatu lauki zuriak elurretako domino zati hau zuzena izan dadin.

2 ELITZEA 3 XUKADERA 5
 1 BERRINGAILUA 14 BURRUNTZALIA
 9 LABANAK 18 MOLDEAK
 22 AZAL-KENTZEKOA 17 ZUKUGAILUA
 8 ERRETILUA 10 IRABTAGAILUA
 19 IRAGAZKIA, TXANOA 21 17 KORTXO-KENTZEKOA 13
 4 GATZONTZIA 1 16 IRABTAGAILUA
 4 MIKROUHIN-LABEA 15 ESTALKIA, TAPA 10 BITSADERA
 15 ARRABOLA 6 12 ZARTAGINA 12
 11 ESPATULA

Lapurrak!

Zenbat lapur ikusten dituzu etxe barruan, inguruan edo barruan sartu nahian?

Bide batez, margotu.

28

Hara!

Besterena baimenik gabe hartzen duenari nola esaten diozu zuk? Lapur? Badu beste izenik ere, hemen sei aurkituko dituzu. Zirriborra itzazu zuzenak ez diren hirurak.

~~TXOKASURU~~ ~~ZIR-ARI~~ ~~XISKALARI~~
~~EBASLE~~ ~~HIALINARRI~~ ~~ESKULUZE~~ ~~HARRAPARI~~ ~~OHOIN~~

Engainagarriak

Sei biribil hauetatik bi iruditik hartuta daude eta gainontzeko laurak engainagarriak dira, hau da, ez dotoz guztiz bat irudiarekin. Bereiz itzazu.

Hamarrekoa

Aurkitu bi eskiatzaileen artean dauden aldeak. 10 dira guztira.

Eman kolorea gure laguntxo hauei, merezi dute eta.

'Plazan Bazan' 12-13 orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase par-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tikullarrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 647 742 588.

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrik emateko. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 647742588

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo ordu-

ka zaintza lanak edo garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. Harremanetarako: 628 459 625

BESTELAKOAK

Bufanda handi bat topatu nuen hilaren hasieran Txokoalde inguruan. 656723650 (Jorge).

Zilarrezko lepoko bat eguzkilore berde batekin galdu nuen abenduaren 1ean, Usurbilgo erdigunean. Aurkitu baduzu eskertuko nizuke deitzea. Harremanetarako: 625701616



HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- ▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotako emango ditugu argitarara.
- ▶ Gainontzeak, hurrengo asteko astekarian.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxonea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

HILDAKOAK



Satur Azpiroz Alsua
Urtarrilaren 6an hil zen, 95 urterekin.

Boleibola Oiardon

Urtarrilak 18, larunbata

13:00 Kadete neskak:
Usurbil-Arizmendi

Eskubaloia Oiardon

Urtarrilak 18, larunbata

- 11:00 Infantil neskak:
Usurbil K.E.-Saieko Persianera
- 16:30 Kadete neskak:
Cortes Usurbil K.E.-Aiala ZKE
- 18:30 Jubenil neskak:
-Usurbil K.E.
-Zurizuri Group

Urtarrilak 19, igandea

- 11:30 Senior mutilak:
-Saizar Usurbil K.E.
-Ereintza Breissier

Pilota Usurbilen

Urtarrilak 17 ostirala, 17.45

Infantilak 3. Maila
Errendimentua, binaka:
Pagazpe - Mundarro 1

Infantilak 2. Maila
Errendimentua, binaka:
Pagazpe 1 - Behar Zana 3

Jubenilak 1. Maila
Udaberri txapelketa, binaka:
- Pagazpe 1 (Alejo-Pagola)
- Ataun

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

LARUNBATA 18

KALEZAR Emakumeon Etxea: "Hitz Esana" emanaldia

Mejillon Tigre kolektiboaren eskutik. Sarrera: doan. Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman.
19:00 Emakumeon Etxean.

OSTEGUNA 23

USURBIL 'Etokizuneko sagastiak' ikastaroa

"Etokizuneko sagastiak: mentu-oin berriak: Geneva belaunaldia", Aitor Etxeandiaren eskutik.
18:00 Potxoenean.

OSTIRALA 24

USURBIL Xake tailerra udal liburutegian

6 urtetik gorakoei eskainia.
17:30 Sutegi udal liburutegian.

USURBIL Zumartek 40 urte: "Katedraletako meza" ikuskizuna

Easo Gazte eta Easo Kapera Gregorianista abesbatzen eskutik.
19:00 Salbatore elizan.

LARUNBATA 25

USURBIL Odolaren Mintzoa agurtzeko jaialdia

Sarrerak eskuragarri: Aitzagan eta Txirrista tabernan nahiz usurbilkultura.eus web orrialdean.
Egun osoko jarduna.



Mejillon Tigre kolektiboa larunbat honetan arituko da, arratsaldeko 19:00etan.

'Hitz Esana' emanaldia Emakumeon Etxean

Mejillon Tigre kolektiboak 'Hitz Esana' emanaldia eskainiko du larunbat honetan, urtarrilaren 18an, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Kalezarko Pelaiocenean kokaturiko Emakumeon Etxean.

Spoken word formatua dabilen poesia-emanaldia da Hitz Esana: "Ahoz gora esateko idatzitako poesia da; errepikari, erritmoari eta hitzen soinuari arreta berezia ematen dion poesia; entzu-

learekin zuzen-zuzenean komunikatu nahi duen poesia; gorputzaz ahazten ez den poesia; esan egiten den poesia; momentuan gertatzen den poesia. Zeharkatzen gaituzten bizipenak piezen muinean kokatzea: etxebizitza, sexu-indarkeria, gorpuztasuna, idoloak...".

Emanaldirako gonbidapenak aurrez eskuratu ahalko dituzte usurbilkultura.eus plataforman.

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen

Urtarrilaren 23ra arte eman ahalko da izena kronoak.com atarian, 30 euroren truke. Izena ematen dutenek txalekoa jasoko dute. Proba urtarrilaren 26an jokatuko da, eta 9:00etan abiatuko da frontoitik. Ohi bezala, partehartzaileek bi ibilbide izango dituzte aukeran.

Beste hiru bisita gidatu asteotan**Urtarrilak 25, larunbata**

- 11:00-12:15 Salbatore elizaren ondarea ezagutzeko bisita.

Urtarrilak 29, asteazkena

- 10:00-11:00 Zero zabor bisita gidatua.

Urtarrilak 31, ostirala

- 10:00-11:15 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Informazioa eta izen-ematea:

650usurbilbizi.eus

Urtarrilaren 24an, xake tailerra

Urtarrilaren 24rako antolatutako dute, 17:30ean Sutegi udal liburutegian. "Saio honetan, xakearen oinarriak erakutsi edota errepasatuko dira, eta torneotxo bat egingo dugu denon artean". 6 urtetik gorako haurrei zuzenduriko hitzordua izango da.

Artzi
Patrimonia
latexea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

ANDATZA TABERNA

EGUNEO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-20:30 Asteleheneetik - Asteazkenara
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera

Kalezar Auzoa 12, 08, USURBIL. Tel 943 73 20 27

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

www.noaua.eus



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

·Fatxadak estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra

Tel.: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

HIPODROMO KALEA BEHEA 10, LASARTE ORIA

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA BAIMENDUA

iruarkaitz@hotmail.com

630 90 02 79 AGINAGA



Antonio
URRUZOLA
AROSZTEGIA

687 845 599 - 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@hotmail.com

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas
Telemar

629 121 355

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri
arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarrainiturgintza@gmail.com



ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

·TRESNERIA ETA ERREMINTAK
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

Urtarrilaren 16an, osteguna, arratsaldeko 20:00etan

Usurbilgo

TXOTX

denboraldiaren
XI. irekiera Saizar-en



Perico Delgado, txirrindulari ohia, eta gaur egun
kirol esatari ospetsua, izango da Ohorezko gonbidatua.

Trikitilariak eta Dantzariak:
KORRONTZI Taldea

Bertsolaria:

Andoni Egaña

Aurkezlea:

Julian Iantzi

Bakarrizketa:

Oscar Terol

Musika Taldea:

SÜNE

Abeslaria:

Manu Tenorio



SAIZAR

Sagardotegia

OHARRA:

SOILIK SARRERA IZANGO DUTE
ERRESERBATUTAKO MAHAIEK.

